

EDITORIALA

Jokin Apalategi, *Uztaro* Aldizkariaren zuzendaria

Uztaro 49a aurkezteko orduan, lehenik eta behin azpimarratu behar dut, aldizkariaren egitura finkoari jarraitzen dion zenbaki baten aitzinean gaudela. Argitaratzen diren lanak, ardatz jakin bati jarraituz idatzitako diziplina arteko gogoeta-ikerketak izan ordez, lanen artean lotura berezirik gabe, giza eta gizarte-zientzien sailetatik datozen artikulua direla, alegia. Berehala ikusiko dugunez lan puntualak izanik ere, garaiko eta azken orduko eztabaida nagusien ispilu dira. Euskal Herriko gogoeta-ikerketak ibilbidearen nondik norakoa seinaltzeko baliagarri izan daitezke urte batzuetara.

Ikuskaritza-arauegian aldaketak: bide onetik gabiltza? lana, Sistema Finantzarioa Berritzeko Neurrien 2002ko azaroaren 22ko 44/2002 Legea aztertzer dator. Auditoreek jasaniko konfiantza eta ospearen galera izan zen legearen aldaketa eragin zuena. Oraindainokoa gure herrialdean zegoen Kontuen Ikuskaritza Legearen zenbait atal aldatzen ditu ICACek Lege Finantzarioa dela medio. Auditorearen prestakuntza zalantzan jartzen da. Hori erremediatu nahirik, batetik, jardue-
ra burutzeko betebeharezko baldintzak eta prestakuntza eta, bestetik, lanbidean mantentzeko baldintzak aldatzen dira. Legearen 7.5 artikulua araberak, hemendik aurrera azterketa-deialdia bakarra izango da eta Auditoreen Ordezkaritza Korporazioek elkarrekin proposatu beharko dute; horrela izan ezean, subsidiarioki ICACek egingo du. Beste aldaketa bat funtzionario publikoen egoerari buruzkoa da. Gaitasun praktikoa lortzeko euren lanarekin nahikoa izango dute, eta gutxienez hiru urteko esperientzia eskatuko zaie. ROACen izena emanda daukaten kontuen auditoreek prestakuntza jarraituko ikastaroak egin beharko dituzte. Beste arlo bat ROACen ez-jardulari izatetik jardulari izatera gerta daitekeen egoera-aldaketa da. Baldintza bakarra fidantza osatzea da. Auditorearen independentzia da beste faktore garrantzizko bat. Independentzia "itxura"ren kontzeptua aztertzen da. Oso kontzeptu subjektiboa izateaz gain, erabat zaila dela hori frogatzea adierazten zaigu. Auditoreen jarduera printzipio eta arau etikoekin bat etorritik gauzatu behar dela frogatzeko, independentzia funtsezko ezaugarria izan daiteke. Bestalde, gure herrialdean, Ikuskaritza Lege berrituak mugatu egiten ditu auditoreak egin ditzakeen beste lan-mota batzuk, eta egoera hori bereziki ezkorra da auditore individual eta ikuskaritza-elkarte txiki eta ertainentzat. Errotazioaren arazoa ere hor dago. Enpresa batzuen kasuan errotazioa derrigorrezko izatea, egokia ez ezik zentzuzkoa era bada, baldin eta auditorea eta bezeroaren artean egon daitekeen gehiegizko konfiantza ezabatzen bada eta, ondorioz, auditore profesionalaren objektibotasuna eta zintzotasuna bermatzen badira. Errotaziorako ezarri den 30 miloi euroko mugari, oso kopuru txikia deritzote autoreek. Ikuskaritza Batzordearen garrantzia dauzkan eginkizunetan oinarritzen da, enpresaren kudeaketa egokia eta auditoreak enpresako kudeatzaileengandik "independentek" izaten lagunduko duelako. Garrantzizkoa da ere ikuskaritza-txostenean eta informazio finantzarioan interesa daukatenean auditorea eta enpresaren arteko kontratua ezagutzea. Ikuskaritza Lege berrituak Europako Gomendioari jarraitzen dio, kontuen auditoreak ICACi eman beharreko informazioan ikuskaritza-lanaren ordu

eta ordainsariak eta bezero bakoitzari prestatutako gainerako zerbitzuen ordu eta ordainsariak bilduz. Korporazioek, bakoitzak bere kabuz, kideei kalitaterako barneko kontrol-sistemak hobetzen, lanen kalitatea hobetzen eta independentziaren inguruko arazoetan soluzioak bilatzen laguntzea erabaki dute. Auditoreek ikuskaritza-lan bakoitzeko derrigorrean ordaindu behar duten *Tasa* ezarri da. Autoreen ustez, Tasa korporazioetako kide ez diren kontuen auditoreei aplikatu beharko litzaieke. Zenbatekoak ikuskaritza-txosten bakoitzean fakturatzen denaren portzentajea izan beharko luke. Arau-hausteak direla eta, jarritako isun ekonomikoei dagokienez, elkarteei aplika dakizkiekeenak handiak dira, berdin hartu baitira elkarte txiki, ertain eta handiak. Lanbideko sekretuak lanaren jardueran lortutako informazioa babespeketasun edo konfidentzialtasunean mantentzera behartzen du auditorea. Ikuskaritzaren kontrol-prozedura hasteko nahikoa zen denuntzia bat egotea; orain, Lege berrituarekin ofizioz hasiko da herri-onurarako baldin bada. Ondorioetan esaten zaigu, beharrezkoa dela mundu ekonomiko eta finantzarioak azken urteotan galdutako konfiantza berreskuratzea. Auditorearen lanen kalitatea hobetzera zuzendutako baliabideak eskaini ordez, auditorearen "itxura" hobetzeko neurriak igorri dituzte. Dena den, kalitate-kontrolak auditore guztiak biltzen ez dituen artean, gizartearen eta Gobernu Erakundearen eskaerak eraginkortasunez betetzeko bide luzea geratzen da.

Erlijioa eta politika Hego Europan lanak, sekularizazio-prozesuen ondotik, hala ere, ezin dela esan erlijioaren pribatizazio osoa izan denik Europan, adierazten digu. Gaia hein batean mugatzeko, zientzia politikoen eremuan geldituko da. Adibideak hartzekoan ere kulturalki eremu katolikoan dauden Frantzia, Espainia eta Italia erabiliko ditu, eta aldi berean aipamen berezi batzuk egingo ditu Euskal Herriari buruzko ikerketetz. Sei sail nagusitan biltzen ditu katolizismoaren eta politikaren arteko lotura aztertzeko metodologiak. Elizak eta erregimen politikoak, historia eta zuzenbidearen metodologiekin aztertuz. Erlijioa eta jarrera politikoak, hauteskundearen soziologiarekin. Elizak eta politika publikoak, politika publikoen soziologiarekin. Erlijioa etika justifikatzaile gisa, azterketa biografiko eta inkesta etnografikoaren bidez. Erlijioa metafora gisa, antropologia eta ideologien azterketarekin. Lehen gaia aipatzean V. mendean Gregorio Aita Santuak bereizi zituen elizaren *auctoritas* espirituala eta botere politikoaren *potestas* tenporala azpimarratzen dira. XVI. mendean erresuma katolikoetako eta protestanteetako estatuak bide desberdinak hartu zituzten. Herrialde protestanteetako sekularizazioan, estatu protestanteak ez ziren eraiki elizen aurka. Erresuma katolikoaren laizizazio prozesuan, berriz, botere politikoak bortz eginahalak egin zituen esfera sozial gehienak elizaren eskuetatik kentzeko. Frantzian, 1901az gero, eliza guztiak elkartean legearen bidez antolatuta daude. Italian, 1929az gero, konkordatuak katolizismoa estatu-erlijio bihurtu zuen. Portugalen, 1940an konkordatu dago estatu eta elizaren artean. Espainian, 1953ko konkordatu gaiztatzen da. Trantsizio politikoan bernegoziazten da. Gure egunetan, eztabaida berri bat sortzen ari da, alteritate erlijio-soaren inguruan. Musulmanen erlijioa txertatu baita Hegoaldeko Europan. Bigarren gaia erlijioak *cleavage* politikoa ulertzeko daukan garrantziaz ari da. Ezker-eskuin ardatza, eta katolizismo irekiaren eta hertsiaeren arteko bereizketa. Korrelazio-mota hori hiru adibiderek argi daiteke: bata frantsesa, bestea espainola eta azkena euskalduna. Frantzian, eskuineko botoaren eta katoliko eliztarren arteko lotura konstante bat da. Espainian, 2000ko hauteskunde nagusietan erlijiotasuna

izan zela PSOEtik PPra mugitu ziren botoak azaltzeko arrazoiatariko bat argitua dago. Euskal Herrian, “espainol baino euskaldunago” edo “euskaldun bakarrik” sentitzen direnek sekularizazio-tasa handiagoa dutela erakutsi zaigu, behin eta berriz. Elizak eta politika publikoak izeneko gaia da hirugarrena. Erlijioaren eragina bereziki sendoa da bi politika sektorialetan: hezkuntza-politiketan, eta politika sozialetan. Estatuak politika publikoaren monopolioa izateak, hala ere, ez du esan nahi pribatizazioa. Elizak, beste elkarte sozial batzuekin batera (bereziki sindikatuekin), presio-talde erabakigarriek bezala jokatu du, eta ez da protesta moduko aldarrikapenetara mugatzen. Adibidez, etorkinei buruzko politikan adierazpen horren esanahia ageri da. Erlijioa erakunde politiko bezala da laugarren gaia. Eliza bera erakunde edo instituzio bezala hartzen da. Baionako apezpikuak zioen bezala, eliza ez da “gobernua herritik ateratzen da” bezalako erreferentzia parlamentario batetarik abiatzen, errealitate mistiko batetarik baizik, non bakoitza bestearen pareko den, izatez eta ohorez. Erlijioa etika justifikatzaile bezala da bosgarren gaia. Erlijiozko heziketa eta sozializazio baten zeharkako ondorioak dira aztergai. Hemen, erlijioaren etikak bizitzaren arazoitzean hartzen du parte. Katolizismoan, erakundeak hartu du izugarrizko garrantzia, eta pertsonaren inplikazioa eta erresponzabilitate etikoak ez dira beste erlijioetan bezain urrun pusatu. Baina, nahiz eta eliza erakunde gisa ahulduz doan, erlijioaren eragina gelditzen da. Seigarren gaia erlijioa metafora bezala aztertzen saiatzen da. Politikan hain garrantzitsuak diren sinboloen eta errituaren dimentsioa daukagu. Ondorio bezala esaten zaigu, garrantzitsua dela erlijio fenomenoaren ikerketarako askotariko ikuspegiak kontuan izatea.

Euskarazko prentsa elkarlanerako estrategien bila lana dator hirugarren atal bezala. Tokian tokiko prentsa eta prentsa nazionalaren arteko elkarlana eta bizikidetzaz aztertzen duen ikerketaren ondorioak aurkezten dira. Elkarlanaren inguruan izan diren esperientziak jasotzeko ahaleaginean 10 elkarrizketa egin ziren, hainbat herritako prentsaren ordezkari, prentsa nazionalaren ordezkari eta Administrazioan lan egiten duten teknikariek. Era berean, gaiaren inguruan orain arte egin diren lan eta tesiak kontsultatu dira. Txostenak eta barne-buletinak irakurri eta aztertu dira. Euskal Herrian orotara, 68 herri-aldizkari daude. 23 hilabetekariak dira, 8 hamaboskariak, 14 astekariak eta 5 egunkariak. Guztira 160.000 etxetara iristen da tokiko prentsa. Aldizkari lokal gehienak doan banatzen dira. Aldiz, euskarazko prentsa nazionala saldu egiten da. Herrietako aldizkariak egunkari-papera erabiltzen dute eta tabloide formatua daukate. Banaketa masiboa eta doanekoa egiten dute. Eskualdeetako egunkariak daude alboan. *Euskaldunon Egunkariaren* itxieraren ondoren eta ondorioz sortu den Euskarazko Komunikazio Taldea SAK bultzada berezi bat ekarri zien. Geroztik *Berriarekin* batera iraun egiten dute. Horrela, herri-aldizkari batzuek egunkari nazionala, txikiak jatera datorren makroegitura gisa ikusten dute. *Asteon Telebista Aldizkariaren* 0. zenbakia ere aipatu beharrezko da. Prentsa nazionaleko eta tokian tokiko aldizkarietako ordezkarien ustez errespetuzko harremanetan oinarrituz eta esparru bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuz eta onartuz, elkarrekin lanean hasteko unea heldua da. Euskarazko prentsa gaztelaniazko prentsaren eskaintzaren parean jartzeko premia sumatzen da. Erakunde ofizialei hainbeste diru inbertitzen duten sektorearen inguruko gogoeta egin dezatela eskatzen zaie.

Hezkuntza Berezian esku hartzeko oinarri psikologikoak lana daukagu laugarren ataltzat. Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleen nahaste ezagunen aurrean abiapuntu izatea du lanak helburu. Horretarako nahasteak banan-banan izendatzen dira: dislexia, hiperaktibitatea, ezintasun motoreak, garun-geldiketa, Down Sindromea, haur supergaituak eta autismoa. Bakoitzarentzat, definizioa eta kokapena ematen dira. Gaitzaren hautematea nola egin. Esku-hartzeak nolakoa izan behar duen. Eskolan egon daitekeen egoera berezia nola bideratu. Familiaren parte-hartzea antolatzeko aholkuak ematen dira. Tratamendu farmakologikoak ere aipatzen dira daudenean. Nahaste bakoitzaren ezagutza errazteko, zenbait taula eta kontzeptu-mapa azaltzen dira. Irakaskuntzan ari direnek kontuan hartu behar dituzten ezaugarriez gain, ikaslearen inguruarekiko komunikazio-gaitasunaren ahalmena kontuan hartu beharra azpimarratu da, zeren garrantzi handienekoa ematen baitzaio ikasleen, irakasleen eta familiaren arteko elkarlanari eta koordinazioari.

Pierre Vilar eta Euskal Herriaren borroka, In memoriam (1906-2003) lana dator bosgarren atalean. Belaunaldi jakin batek ezaguna duen historiagilea, ezezaguna eta ahantzia delakoan gure arteko askorentzat, bere oroitzapena euskal ondare kulturalean txertatzeko asmoz idatzia da. Gainera, lanaren ekarpen nagusia isilean gordetako ekimen batzuen berri ematean datza. Nork daki Pierre Vilar euskal kulturaren arras jantzia zela? Bere emaztearen eragina erakusten da. Hazparnen sortutako Gabriela euskal jatorria eta erroak gordetzen jakin zituena bezala aipatzen da. Nazio-arazoetan jakintsu zenak Espainiako Estatuari gogorazten zion gertakari historikoak etorkizuneko estatu-konfigurazioan jarraitu beharreko bide-seinaleak zirela eta nazionalitateek libreki erabakiko zuten federalismoan elkar zitezkeela hori baldin bazen egin hautua. Nork daki Pierre Vilar izan zela Sartre-ren "Hitzaurre" famatua egiteko beharrezko izan zituen euskal informazioak biltzen lagundu zuena? Adiskideekin ezin adiskideago izaten zen beti. Artikuluaren autoreek hainbat lekukotasun dakarte euskal arazoa gainditzeko parte hartzen zutenei berak emandako solidaritatea eta sostengu intelektuala erakusteko. Katalunian harro errebindikatzen badute haren ekarpena eta adiskidetasuna, euskaldunok ez dugu motibo gutxiago nazioartean jarraitua den intelektual honen jarrera euskaltzalea lau haizetara aditzera emateko.